

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O) **2022ko urtarrilaren 15etik 21erako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/01/15

- Ebazpena, 2021eko abenduaren 29koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den arroza egiteko industrien Estatuko hitzarmen kolektiboa. **654 xedapena - 41 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2022/01/18

- **Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.** - Erabakia Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebatzen da Bizkaiko Autoeskolen Sektorekiko bitartekaritza akordioa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48000255011981). **III-5 xedapena - 2 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2022/01/21

- 2019-2021 urteetarako Gipuzkoako Pasta, Paper eta Kartoigintzaren enpresaren hitzarmen kolektiboaren aldaketaren akordioa. **013 xedapena - 2 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/01/17

- **BALORE MERKATUAREN BATZORDE NAZIONALA.** - Inbertsio kolektiborako **erakundeak.** - 1/2022 zirkularra, urtarrilaren 10ekoa, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalarena, inbertsio-objektutzat aurkeztutako kriptoaaktiboen publizitateari buruzkoa. **20471 xedapena - 1 or.**

2022/01/19

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Kreditu erakundeak eta inbertsio-zerbitzuen enpresak. Aktiboak kudeatzeko sozietateak.** - 1/2022 Errege Lege-dekretua, urtarrilaren 18koa, honako hauek aldatzen dituena: 9/2012 Legea, azaroaren 14koa, kreditu-erakundeak berregituratu eta konpontzeari buruzkoa; 11/2015 Legea, ekainaren 18koa, kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuko enpresak berreskuratu eta suntsiaraztearena; eta 1559/2012 Errege Dekretua, azaroaren 15ekoa, zeinaren bidez aktiboen kudeaketa-sozietateen erregimen juridikoa ezartzen den, Banku Berregituratzetik eratorritako Aktiboen Kudeaketa Sozietatearen erregimen juridikoarekin lotuta. **800 xedapena - 10 or.**
- **Premiazko neurriak.** - Akats-zuzenketa, honako Errege Lege-dekretu honena: 32/2021 Errege Lege-dekretua, abenduaren 28koa, lan erreformarako, enplegu-egonkortasuna bermatzeko eta lan merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzkoa. **801 xedapena - 2 or.**
- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA. – Etxebizitzarako sarbidea.** - 42/2022 Errege Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gazteen Alokairuko Bonua eta Etxebizitza Eskuratzeko Estatuko 2022-2025 Plana arautzen dituena. **802 xedapena - 61 or.**

2022/01/20

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. – Ekoizleen erakundeak. - Abeltzaintza.** - 1154/2021 Errege Dekretua, abenduaren 28koa, abeltzaintza sektore jakin batzuetako ekoizleen erakundeen eta haien elkarte onarpena arautzen duena eta erakunde horiek eta haien elkarteek kontratuak negoziatzeko baldintzak ezartzen dituena. **859 xedapena - 19 or.**
- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. – Estatuaren zorra.** - ETD/18/2022 Agindua, urtarrilaren 18koa, zeinaren bidez xedatzen den 2022 eta 2023ko urtarrila bitarteko Estatuaren Zorra sortzea, eta araututako Ekintza Kolektiboko Klausulak jasotzen diren. **861 xedapena - 26 or.**

2022/01/21

- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. - Ingurumena.** - 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. **951 xedapena - 94 or.**

- **BARNE MINISTERIOA. – Pertsonak mugitzeko ibilgailuak.** - Ebazpena, 2022ko urtarrilaren 12koa, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez onesten den Pertsonak mugitzeko ibilgailuen ezaugarriei buruzko esku-liburua. **987 xedapena - 34 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2022/01/17

- **KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA.** - 6/2022 DEKRETUA, urtarrilaren 11koa, Euskal Kultura Ondarearen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroari buruzkoa. **224 xedapena - 7 or.**

2022/01/21

- **BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.** - 5/2022 DEKRETUA, urtarrilaren 11koa, zeinaren bidez onartzen baitira Aukerak-Gizarteratzearen Euskal Agentziaren estatutuak eta atxikitzen baitira «Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo» zuzenbide publikoko estatu-erakundean zerbitzua ematen zuten langile transferituak. **331 xedapena - 16 or.**
- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** - 6/2021 FORU ARAUA, abenduaren 22koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2022. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak. **332 xedapena - 48 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2022/01/17

- **Arabako Foru Aldundiaren iragarkiak. - SAILA (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** - Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun Finantza eta Aurrekontu, Saileko foru diputatua, 1/2022 Foru Agindua, urtarrilaren 4koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren abenduaren 11ko 765/2013 Foru Agindua aldatzen duena. Foru Agindu horrek balio erantsiaren gaineko zergaren 390 eta 391-ereduak onetsi zituen. **52 xedapena - 10 or.**

2022/01/19

- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2022 Foru Dekretua, urtarrilaren 11koa. Onespena ematea 2022ko ekitaldian egingo diren eskualdaketei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan

eta sozietateen gaineko zergan aplikatu beharreko eguneratze koefizienteei. **47 xedapena - 4 or.**

- Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2022 Foru Dekretua, urtarrilaren 11koa. Onespena ematea aldatzeko Zergadunen Errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituen urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretua eta Fakturazio Betebeharren Arautegia onesten duen maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretua. **53 xedapena - 4 or.**
- Foru Gobernu Kontseiluaren 4/2022 Foru Dekretua, urtarrilaren 11koa. Onespena ematea balio erantsiaren gaineko zergaren erregimen berezi erraztua arautzeko 2022rako. **54 xedapena - 41 or.**
- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** - 13/2022 Foru Agindua, urtarrilaren 17koa, lehen diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Luzatzea autolikidazioak eta aitorpenak aurkezteko eta ordaintzeko epea, zeina 2022ko urtarrilaren 25an amaitzen baita. **109 xedapena - 1 or.**

2022/01/21

- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** - Lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 15/2022 Foru Agindua, urtarrilaren 19koa, 2022ko helbideratutako zerga sarreren egutegia aldatzea ezartzen duena. **126 xedapena - 2 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2022/01/18

- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 118/2022 FORU AGINDUA, urtarrilaren 17koa; honen bidez, 2022ko urtarrilaren 31ra arte luzatzen da muga-eguna 2022ko urtarrilaren 25ean duten aitorpenak eta autolikidazioak aurkezteko epea, COVID-19ak eragindako murrizketen ondorioz. **I-44 xedapena - 2 or.**

2022/01/19

- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 49/2022 FORU AGINDUA, urtarrilaren 10koa. Honen bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuko zeinu, indize eta moduluak onesten dira 2022. urterako. **I-18 xedapena - 35 or.**

2022/01/21

- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 50/2022 FORU AGINDUA, urtarrilaren 10ekoa, zeinen bidez onartzen baitira zerga hauek kudeatzean aplikatu beharreko batez besteko salmenta-prezioak: Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia. **I-21 xedapena - 1517 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2022/01/18

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 14/2022 Foru Agindua, urtarrilaren 17koa, mugaeguna 2022ko urtarrilaren 25ean duten autolikidazio eta aitortpenak aurkeztu eta ordaintzeko epea luzatzen duena. **271 xedapena - 1 or.**

2022/01/21

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 15/2022 Foru Agindua, urtarrilaren 17koa, hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortpena egiteko 347 eredua onartu eta haren aurkezpen moduak ezartzen dituen. **274 xedapena - 39 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2022/01/18

- Kontseiluaren 2022/66 (EB) Gomendioa, 2022ko urtarrilaren 17koa, zeinaren bidez aldatzen den funtsezkoak ez diren EBrako bidaiak aldi baterako murrizteari eta murrizketa hori kentzeari buruzko 2020/912 (EB) Gomendioa. **L 11/52 xedapena - 4 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENAO, 26 - BILBAO